

ELEIZAN

Jokabidea

Antxiña, Euskalerririk geiena Kaligurri'ko Gotzaiñaren menpean egoanik ona, euskaldunai euskeraz berba egiteko agindua izan da Eleizan, baiña, zori txarrez, erdere

Gaur eleiz-giroa euskerearen aldekoa da, bai abadeen artean eta bai beste eleiztarren artean, baiña emen be ezin goratu dana, ba-dagoz illun-uneak zori txarrez.

Barandiaran'dar Jose Migel'en idazlan baten irakurri neban, eleizea euskerearen ikastola izan dala. Eta geienetan orrelan jokatu da, eta ori guztiontzat da pozgarria. Ezin itzi emen gogoratu barik, lengo katekesi-liburuaren euskera ederra ta gozoa, ainbeste miIIa euskaldunek irakurri eta ikasi daben liburutxu polita. Eta orain daukagun "meza-liburua" ta "Irakurgaiak" deritxona. Eta beste liburu eder asko.

Elebitasuna?

Gaur larregi aitatzen da eleizan elebitasuna erabilli bear dala eta esaldi orrek bildurra sartzen daust azurretaraiño.

Elebitasuna ondo dago ia guztiak erdeldunak diran tokietan eta zenbat eta geiago sartzen dan, obeto.

Ezelan be ezin onartu elebitasuna ia guztiak euskaldunak diran errietan. Eta olako erri asko daukaguz, zori onez.

Eta euskera ta erdera erdiz-erdiz edo, egiten daben errietan zer?

Or jokabideak zalantza asko daukaz eta bide bat artu bear izaten da. Nik labur-labur azalduko dot geuk artu dogun bidea, eta ez nago ziur ona dan.

Illetak etxeak eskatzen dabezan lez izaten dira, geienak euskeraz, baiña larunbat eta igandeetan elebitasuna artu bear izaten da, orduko mezea dalako.

Igandeetarako mezen artean, bat euskera utsean, beste bat erdera utsean eta beste guztiak elebitasunaz. Euskera edo

erderea geiago edo gitxiago erabilten da, aurrean dagozanak zein izkuntzatakoak diran ikusita. Astegunetakoak elebitasunaz egiten dira.

Batzarretan zatirik gurenak euskeraz, esaterako otoitzean, baiña gero alkar-izketan erderara jot

Eskatzen dabenai itz bat

Ba-dira eleizan euskera geiago bear dala esaten dabenak, baiña gero sarritan, eurak berbetan dabiltzanean erderaz entzuten doguz; eta euskera eskatzen daben

Besteai eskatzea da errezag

Oneik, jakiña, euren pentsabidea dauke, zori txarrez euskerearen aurkakoa, eta olakoai jaramon egiteko usterik ez dogu. Euskerearen aurka jokutzen dauana, zalantza barik, gure erriaren aurka doa.

Abadeak

Banakako kasuak aide batera itzita, abaderik geienak jatorrak dira euskerearen aldeko eritxietan, lenago eta gaur, eta euskera utsez egiten diran batzarrik geienak abadeenak izaten dira.

Abadeen artean ba-dira euskera ondo menperatzen dabenak, idazle onak be bai, baiña beste askok, euskeraz berba ondo egin arren, idazteko orduan euren burua landu barik ikusten dabe. Tamala benetan. Ori adierazten dau emen azpian agertzen dogun oarrak edo deiak. Larrabetzu'ko abadea dan Jose Manuel Bizkarguenaga'k idatzia da. Lan ederra da or iragarten dauana!

Berotasun geiago bear dogu euskera jantzeko!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ZELANGOA DA ABADEON EUSKERA?

Aldizkari onetan, euskera menperatzen ez daben abade talde batek zer egin dauan eta zer egiten dauan azaltzen da erderaz. Igazko ikasturtean, euskera dakien abadeei ere egin jaken dei bat, euren umetatik ikasitako izkuntza au lantzeko eta aberas

Tamalgarr

Abade batzuegan ere ori jazoten danez, Elizbarrutiko Bikaritz

ALKARREN BARRI
ELEIZBARRUTIKO ALDIZKARITIK